



ERREFERENTZIA	Justizia Programa 2014-2020 (Europako Batzordea. DG Justizia, Askatasuna eta Segurtasuna).
HELBURUAK	<p>Programaren xedea, elkarren arteko aintzatespen eta konfidantzan oinarritutako Europako Justizia Esparrua garatzen jarraitzea da, bereziki, gai zibil eta penaletan lankidetzaren sustapenaren bidez.</p> <p>Horretarako honako berariazko helburuak hartuko dira kontutan:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Gai zibil eta penaletan lankidetzaren sustapena erraztu eta babestu.</li><li>- Trebakuntza judiziala sustatu eta lagundu, terminologia juridikoaren inguruko hizkuntza trebakuntza barne, amankomuneko kultura juridiko eta judiziala sustatzeko asmoz.</li><li>- Pertsona guztiek justiziarako sarbide eraginkorra dutela erraztu, delituen biktimen eskubideen sustapena eta laguntza barne, defentsaren eskubideak errespetatzen diren aldi berean.</li><li>- Droga alorrean ematen diren ekimenen babesa lankidetzaren sustapena eta delinkuentziaren prebentzioaren alderdiei dagokionez.</li></ul>
EKINTZAK	<p>a) Datu bilketa eta estatistikak bezalako ekintza analitikoak; amankomuneko metodologiaren garapena eta, bidezkoa denean, amankomuneko erreferentziarako adierazle edo parametroena; azterlanak, ikerketak, analisiak eta inkestak; ebaluazioak; gida, txosten eta heziketa-dukien prestaketa eta argitarapena; eta tailerrak, mintegiak, adituen bilerak eta hitzaldiak.</p> <p>b) Trebakuntza ekintzak, hala nola, langile, tailer, mintegi, trebatzaileen trebakuntza, terminologia juridikoaren hizkuntza-trebakuntza barne, eta online trebakuntza edo bestelako tresnen garapena epaile eta profesional edo justizia administrazioan lan egiten duen langilerientzat.</p> <p>c) Elkarrenganako ikaskuntza, lankidetzaren sustapena, jardunbide egoki, ikuspegi eta esperientzia berritzaileen identifikazioa eta hartu-eman bezalako sentsibilizazio eta zabalkunde jarduerak; homologoen egindako berrikusteen antolaketa eta elkarrenganako ikaskuntza; hitzaldi, mintegi eta informazio kanpainen antolaketa, Programaren helburuekin bat egiten duten heinean Batasunaren politiken lehenetsuen komunikazio instituzionala barne; programaren eta honen emaitzen inguruko dibulgaziozko dukien konpilazioa eta argitarapena; informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzen dituzten sistema eta baliabideen garapena, ustiaketa eta mantenua, hiritarrek justiziara duten sarbidea hobetzeko baliabide gisa Justizia Europar Atariaren garapen handiago bat barne.</p> <p>d) Programaren helburuak lortzera laguntzen duten eragile nagusien ekintzen babesa, hala nola, Batasunaren politiken eta Zuzenbidearen ezarpenen Estatu kideak laguntzen dituzten ekintzak; europar eragile garrantzitsuen eta europar sare nagusiei babesa, baita trebakuntza judizialari dagokionez ere; eta espezializatutako organismo eta erakunde eta nazio, eskualde eta toki mailako agintarien eta gobernu kanpoko erakundearen arteko Europa mailako sareen sorrera-ekintzei babesa.</p>
ONURADUNAK	Irabazi asmorik gabeko erakundeak. Irabazi asmoa duten erakundeek, irabazi asmorik gabeko edo publikoak diren erakundeekin batera parte hartu behar izango dute.
AURREKONTUA	377.604.000 euro
GAUZATZE ALDIA	2014-2020
INTERESEKO ESTEKAK	<a href="#">Europako Batzordearen web orrialdea – Justizia</a> <a href="#">Programa ezartzen duen arautegia</a>

**INFORMAZIO  
GEHIAGO**

**Europako Batzordea**

Justizia, Askatasuna eta Segurtasuna ZN

E4 Unitatea. Laguntza finantzieroa

LX-46 7/49 Bulegoa

Avenue du Bourget 1

B-1040 - Brusela

Fax: 32-2-299 82 15

JLS-Criminal-Record@ec.europa.eu